Bizkaia eta Gipuzkoaren artean Orduan garraiolarien sindikatu sortu berriak Ergobin zeukan bulegoa. Sintrabik Matienan pertsona bat

«En junio de 1995 comencé a trabajar en las oficinas del sindicato, en Ergobia. Era para dos o tres meses, en verano, y han sido casi 30 años»



Xabi Momoitio comenzó a trabajar en la oficina de Ergobia, pasó por Matiena y ha terminado en Lasarte-Oria.

behar zuten, eta Bergaran bizi nintzenez han hasi nintzen lanean.

"Sei-zazpi urte egin nituen. Hala ere harreman haundia neukan Gipuzkoakoekin, ADRa ateratzeko ikastaro guztiak nik ematen nituelako; Orduan, Oiartzunen Lintzirin Hotelean. Europan ibiltzeko derrigorrezkoa zen baimena eta ia asteburu izaten ziren ikastaroak. Asteaz zehar Bizkaian lan egiten nuen eta asteburuan Gipuzkoan" azaldu digu, hasteko.

Hiru eta Bidekoren sorrerak

Sinragi, Sintrabi eta Sintraraba batu eta Hiru sortzeko negoziaketa garaia zen. "Denak ezagutu ditut. Arabatik Modesto Garcia, Gipuzkoatik Esteban Muruamendiaraz eta Bizkaitik Jon Mikel Abellanal. Bizkaikoak ez ziren Gipuzkoa eta Arabakoekin konpondu, lau katu geratu ziren

Hirun eta aparte jarraitu zuten; gerora bi taldetan banatu ziren: Sintrabi eta Egaz".

Bideko Aterperen sorreran ere parte hartu zuen. "Matienako arbel batean antolatu zen guztia. Astelehenero elkartzen ginen aipatutako teknikari guztiak. Asko ikasi nuen beraiekin garraioari buruz. Ikastaroak ematen jarraitzen nuen, Gipuzkoara etortzeko eskaintza egin zidan Hiruk. Ordurako Lasarte-Oriako bulegotan zeuden. Berez ondo nengoen Bizkaian, lankide onak nituen, baina Gipuzkoara etorri nintzen. Sintrabin Abellanalek jarraitu balu agian oraindik han egongo nintzen".

Ez da damutzen Gipuzkoara etortzeaz, "pozik egon naiz hainbat urtetan; hasieran ikastaroak ematen, baina gero beste hainbat

gauzatan. Bizkaian jada egiten nituen gero hemen egin ditudan lanak, Matienatik Bilboraino joaten nintzen, baimen bereziak, bisatuak eta abar eskatzera; Bizkaiko jendea ere ezagutu dut. Juli Iturrieta izan zen han nire maixua, 'kalea egiten' eta lagun handia ere bai, oraindik".

Hego Euskal Herriko lau herrialdetan egin ditu tramiteak. "Danean egin ditut, Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan. zenbat eta gehiago jakin, gehiago egiten dituzu: Araban ikastaroak eman ditudalako. Nafarroan Galarreko surtidorea martxan jarri zenean, Iruñeko Segurantzaren Sozialaren edo Ogasunaren bulegoetan bertako lankideek martxa hartu arte. Bizkaian ere, bulegoa Lezaman zegoenean, Larrabetzuko zabaldu aurretik".

Asko inplikatu zara?

Ez, ez da hainbesterako. Jarduera berezia da, garraiolarien bizimodua eta lana bera ere bai, oso garrantzitsua gizartearentzat; eurak ere ez dakite askotan ze garrantzia eta ze botere daukaten.

«Curré casi siete años en la oficina de Sintrabi en Matiena, entre semana, en Bizkaia. El fin de semana impartía cursos de ADR en Gipuzkoa»

ELKARRIZKETA

Konpromiso handia eduki dut, nik neuk, bestalde, trebakuntzarekin, jakin-mina eta ikasteko gogoia: urtero urtero aldaketak egoten dira, batean edo bestean, ADRaren arauak, trafikokoak edo beste, etengabe aldatzen ari dira hemen, Madrilen, edo Bruselan. Kontuan eduki dut beti hori. Azken finean, denetarik jakin behar duzu, Ogasunaren inguruak, garraioaren gorabeherak, araudiak, isunak eta abar.

Bazkide batzuk soilik izenez ezagutzen dituzu; noizean behin galderaren bat egingo dizu; baina gehienek harreman estua daukate zurekin, denetarik galdetzen dizute. Erretiroa hartuta gero ere, galdetzen dizkirate. Nire ordezkioak ere, zalantzak baldin baditu, deitzen dit.

Erreferente eta esperientzi handikoa zure lanean...

Horretan norberaren nortasunak ere eragina dauka. Hainbat lekutan izan ditut hartuemanak, Hiruko pertsona eta arpegia izan naiz. Errieta niri egin didate, Trafiko edota Ogasuneko bulegoko arduradunarekin edota buruekin askotan egon naiz. Hainbeste urtetan eguneroko hartuemana izanda adiskidetasun handia egin dut bulego horietan. Lankideekin baino handiagoa sarri. Sanmamesera ere joan naiz Athletic taldearen partidak ikustera edo elkarrekin bazkaltzera. Haziendako lagun batekin esaterako. Nik ikasi egin dut eurekin; eta eurak ikasi egin dute nirekin.

Jakina, atea zabalik edukitzeko, nik ere zabalik eduki behar, eta atea irekita egon dadin nik egin behar dut lana. Zerbaiten beharra edo premia daukazunean ate hori jotzeko.

Urteen poderioz, lortu dut eurak nirekin konfiantza edukitzea, eta nirekin badaukate sindikatuarekin ere bai. Garraiolari gehienek gestoria



Xabi Momoitio junto a su sustituta Tamara Muñoz.

izaten dute kontuak eramateko, baina kamioiaren tramiteak guk egitea nahi dute. Fidatzen direlako.

Beti ondo erantzun zaielako; Ibilbide luzea egin duzu Hirun...

Gorabeherak izan ditut sindikatuan, zuzendaritzan ziren garraiolariak eurak ere une jakin batzuetan erabakiak hartu behar izan dituzte, lankideak kaleratzea, adibidez; neurri hori ondo ikusi ez eta nire gustukoa izan ez arren, beti errespetatu ditut. Desberdin pentsatu eta bat ez gatozen arren ez naiz zure etsaia; helburu berdinarekin ari gara lanean. Badaude batzuk hori ez dutenak onartzen.

Une gazi eta gozoak eduki dituzu urteotan, beraz...

Batez ere asko gogoratzen naiz falta direnez, lan honetan gogorrena hori izan da, bidean gelditu direnak, istripu larriak izan dituztenak. Latza da. Beste toki eta lan batzuetan baino latzagoa.

Adibidez gogoan dauzkadan hiru kasu. Agustín Hildagorekin hartueman oso berezia neukan, lagunak partekatzen genituen eta ADRarekin ibiltzen zenez sarri egoten ginen, galdera asko izaten zituen; gainean egon beharra dago, arau aldaketa asko dagoelako. Moto istripua izan zuen.

«Siempre he tenido ganas de aprender, un gran compromiso con la formación: cambian criterios y normativas constantemente»

«Es una profesión y una vida especial; muchas veces ni ellos mismos son conscientes de la importancia que tienen para la sociedad»

Jose Manuel Manterola zarauztarra ere moto istripu batean hil zen. Telefonoz berbetan egon nintzan egun horretan bertan berarekin. Bezperan, arratsaldean egon zen bulegoan, kontu kontari eta hurrengo egunean hila zen. Oso jatorra. Hiru ume txiki zeuzkan.

Edo Kupela errenteriarra, hasiera hasieratik ezagutzen nuen, bulegoak Ergobin zeudenetik. Beti adarra jotzen, Athletic gora eta behera, elkarrekin bazkaldu edo kafetxo bat hartuz. Harreman oso estua nuen hauekin eta galera handia sentitu nuen hil zirenean, hutsunea.

Asko dira. Batzuketan harreman estuagoa daukazu, tramite eta prozesu luzeetan gaizki pasatzen da arazoak konpondu arte, Administrazioak sarri trabak jartzen ditu, danetarik egon da, baina, esan daiteke azken urteotan, funtzionamendua okertu egin dela. Ze adiskidetasuna garraiolarietara eta zenbat haserre garraio saileko bulegoko arduradunekin!!!

Eguneroko ogia...

Gehienetan, gustura behintzat bai, hala ere. Egia esan, presioa ere izan da lan honetan, ez naiz ni neu ere lasaia; "lasai" esaten badizute ere, ez zaude lasai, garraiolaria baimen horren premian dagoelako lanean hasteko. Kasu bakoitza erronkatxo bat da. Denbora oso garrantzitsua da. Hau ez da auto baten transferentzia egitea.

Garraiolaria ezin da 15 egunean geldirik egon paper bat falta zaiolako. Bera ordaintzen ari da jada. Milaka euro daude jokoan, sekula ez dut ulertu Administrazioak sarri hainbeste traba jartzea.

Denetarik ezagutu dut bulegoetan; nahiz eta askotan Trafikok fama txarra izan, oro har, nirekin oso ondo portatu dira beti. Eta nirekin ondo portatu badira, Hirurekin portatu dira ondo.

Jakina da arauak gero eta zorrotzagoak bihurtu direla. Datuen babesa ere aktibatu zuten. Garai batean dokumentu originalak, sinatuak, eramaten genituen. Orain firma digitala eta beste, konplexuagoa da.

Orain, Tamara Muñozek hartuko du zure lekua...

Tamara, ordezkaria, oso ondo ikusten dut alde horretatik, jatorra eta irekia da, balio du jendearekin trataturako, hartuemanetarako; Azken finean gestore lana egiten dugu sindikatuan, arazoei irtenbidea emon, garraiolaria gustura eta pozik egoteko... argia eta langilea, nirekin konparatzen hasiz gero, ordenagailuaren teklaturekin edota teknologia berriekin askoz ere trebatuagoa, ez dago parekatzerik. Bi mundu ezberdinetakoak gara. Gero, egia da, nik buruan gauza asko dauzkadala, urtetan ikasitakoak. Judithekin hartueman gutxiago eduki dut, baina ondo ikusten dut bera ere.

Lankide asko izan dituzu, baina beti tandemean Javi Zaraguetarekin...

Javi eta biok, izatezko bikote, "pareja de hecho", garelako diote. Bi pertsona oso desberdinak gara baina oso ondo konpondu naiz... bera ixilagoa eta erreserbatuagoa bada ere; bat Osasunakoa eta bestea Athleticekoa... baina utz dezagun hori. Eli abokatuarekin ere oso hartueman ona izan dugu, biok. Aitatxo batzuk izan gara berarentzat.

Lanbarrengo lankideekin telefonoz baina hartueman estua izan dugu. Jonek politika ikasketak egin zituen; nabaritzen da, gure garaikoa izan beharko luke. 75eko trantsizioa eta saltsa politikoa bizi. Lankide hauek asko dakite, lan espezifikoa dute, baina ez dute garraiolaria guk beste ezagutzen. Zaharragoak gara.

Garraiolarietara ere harreman handia izan duzu...

Gidari profesional asko ezagutu ditut, garraiolari peto petoak. San Jose enpresan hasitakoak, jada jubilatutako; eurekin asko ikasi dut. ADR ikastaroetan beti esaten nuen, nola erakutsiko diot 20 urtetan zisterna bat eraman duen garraiolariari, zisterna nola eraman behar den? Guk adierazi diezaiogegu, teorikoki, jarioak zenbatekoa izan behar duen, nondik zirkulatu dezakeen, errepidean araua zein den... baina, ikastaroa ematen ari naizela, norbait hasten bada berak nola manejatzen duen esaten, nola egiten duen hau edo hori, irakasle bezala onena duzu isildu eta berari uztea. Nik klasea diseinatu, baina berak eman. Hori horrela da. Jakituria handia daukate.

Esan bezala ezagutu ditut gidari oso abilak, bolantearekin krak batzuk, gehitu, kendu, zatitu edota biderkatzen jakin gabe, kamioia

«Veo bien a Tamara, la sustituta: trabajadora, amable y abierta; tiene muy buen talante, se desenvuelve y se relaciona bien con la gente»

ELKARRIZKETA

ezin-hobeki eraman dutenak. Dena den, 40 tonatik gora daramatzate bizkarrean edota dirutza balio duen karga, hainbat milioi euro balio duen zerbait. Arrisku handiko lanbidea da, ez bakarrik egun osoan errepidean dabiltzalako.

Zuzendaritzako hainbat kide eta afiliatuekin hartueman handia izan dut, Hernaniko Aranburutarrekin, Mikel Etxeberria idazkari nagusi izanarekin, betiko nagusi Patxi Agirrerekin, zer esanik ez, edota, Kepa Otxoa, arrasatearrarekin... Burniko adiskide guztiekin dut harreman handia, adarra jotzen diet, zirikatatu; edo eurak niri.

Une eta gertaera barregarririk egongo zen sindikatuaren bulegoan?

Politak ziren ostiral arratsaldeak. Bulegoan lasaiago egoten ginen eta bueltan zetozenak kontu kontari. Euren bidez hainbat kontu ezagutu ditugu. Nondik nora ibili diren, nolakoa izan den astea, nora joaten diren... Une polit asko egon da. Hainbat anekdota dauzkagu eurekin edo euren emazteekin, barre ugari egin dugu.

Bazkideak, bere penak eta arazoak kontatzera etorri direnean, oraindik eta gehiago beldurtu izan ditugu, dena esajeratuz, brometan, noski, konturatu diren arte bera zirikatzen ari ginela gu. Adarjotze eta katxondeo asko egon da bulegoan, baina beti, gero, laguntzeko prest.

Une latzak ere bai. Garraiolarien grebak esaterako...

Hiruzpalau aldiz egin ditugu grebak, gutxienez. Lehenengoak 1997 eta 1998koak izan ziren gogorrenak. Polita izan da azkenengoa ere, 2021ekoa. Berrito piztu da aldarrikapenen kontua, batu egin dira; grebak jendea batu egiten

«Antes iban con otra calma. Ahora cualquiera adelanta a los repartidores de pescado fresco que tenían los camiones más rápidos»



du. Batzuk haserretu egingo dira, baina normalean sindikatuko kideen kopurua handitu egiten da, organizatua dagoenarengana batzen da jendea. antolatua ez dagoenari datuak falta zaizkio. Grebak egiten direnean ikusi egiten dute hori eta sindikatura arrimatu. Afiliatu kopuruak gora egiten du.

1998an 40 afiliatu inguru ziren Bizkaian. Grebaren ondoren, 150. Bermeoko portuan, Durangaldean, Galdakaon, Orduñan, Mallabian edota Ermuan; greba egin zutenen artean, danetarik izan zen orduan: ogi- banatzaileak, Durangon laminatuekin edota paperarekin zebiltzanak, eta abar. Elorrioko Eroskiko biltegian ere batu zen jendea guregana.

Horrelakoetan, bi kontu daude beti hor, alde batetik jendeak esan dezake, ba oso ondo, grebaren aldarrikapenak zuzenak dira; baina bestetik, beste batzuk, etxean gora

behera handiak badituzte, olio eta jatekoak amaitu bazaizkie edota zure jarrera zein jokabidea ulertzen ez baldin badute, zure kontra jartzeko arriskua ere badago.

Ondo ezagutzen duzu sektorea. Ze etorkizun ikusten diozu garraioari?

Orain hasi da Administrazioa baimenak eta erraztasunak ematen, garraiolariak falta direlako. Kanpokoak hasiko dira. Sarri ez dut ulertzen kamioia eramateko hainbeste gauza eskatzea pertsona bati. Oinarrizkoa, badakite.


Niretzat kezka iturri da, azken urteotan zertan bihurtu den garraioa, dena presaka; egia da gaur egun bideak askoz hobeak direla, baina...

Lehen beste patxada batekin ibiltzen ziren. Garai batean harreman estua izan nuen arrain banatzaileekin; haiek zeuzkaten kamioirik handienak eta azkarrenak. Ziztu bizian ibiltzen ziren arraina frexko iritsi zedin. Orain esaten dute, harria daramatenek ere aurreratu eta eurak atzean uzten dituztela.

Aldatzen doaz kontuak...

Askotan esan dut hori. Sektorean egon diren aldaketen berri ematea da gure lana. ADRak hiruzpalau urtean aldatzen ditu arauak, bi urte jakinarazten, bi urte frogatzeko eta laugarrenenetik aurrera, jada, derrigorrezko; zigortu egiten dute.

«He tenido contacto directo y diario con los funcionarios. He aprendido con ellos y ellos han aprendido conmigo. Ha sido una buena relación»



Xabi Momoitio con las nuevas incorporaciones a Hiru Lasarte.

**Zer moduz informatikarekin?
Asko aldatu al da dena?**

Pentsa, nik ez nekiela ezer ere ez. Pixkanaka ikasi dut, laguntza eskatuz. Laura lankideak gauza pila bat erakutsi zizkidan, eta gero Imanol informatikariarekin eta orain Javirekin asko ikasi dut. Mila esker, hiruei. Lehen dena leihatilan egiten zen. Orain dena da telematikoa. Askotan, bi aldiz egiten dugu lan.

Erraztu edo zaildu egin al da?

Honen inguruan badaukat kezka: batetik Administrazioak erraztasunak ematen ditu gauza askotarako baina, bestetik, harreman zuzenak galdu dira eta ez dago bulegoan mesederik eskatzerik. Lehen arazoak konpontzeko nahikoa zen bertako pertsona batekin hitz egitea.

Orain, saiatu arren, ez dago aukerarik, "F tekla saka ezazu" esaten dizu konputagailuak eta ez dizu balio. Zure beharra ez dago makinaren programaren aukeren

artean. Edo eskabidean pisua 4. jarri eta Ogasunean 4B bada makinak ez du aurrera egiten. Lehen joan bulegora bertara eta zuzentzen zenuen langileari esanda. Orain idatzi bat aurkeztu behar da bulegoan. Hau zer da aurrerapena edo denbora galera? Hori dena pertsona batek kamioiarekin lana egiteko. Ez da denbora-pasa.

Itxialdi hartatik bueltatu ginenean, aukera geneukan berriro bertara joateko; hasieran, musukoarekin, zita jarri, kanpoan itxaron eta abar, kristo guztia; orduan komentatu nien bertako langileei, "hau oso ondo dago, dena telematikoa, zergatik ez duzue proposatzen txertoa ere telematikoki jartzeko", esan nien, keinu eginez. Barre egin zuten.

Zenbat kilometro egin dituzu Bergara eta Lasarte artean?

Orain erretiratu naizenean diru pila aurrezten dut. Joan eta etorri 120

kilometro dira egunero, 26.000 pasa urtean. Golf zaharra ia milioi erdi kilometro eginda erretiratu nuen, 470.000tik gora. Passatari 600.000 kilometro eta piku egin dizkiot.

Zer moduz jubilatuta?

Tamarari esaten diot, erretiratu naizen arren, nirekin kontatzeko, orain eta gero ere bai... Noizbait zalantzaren bat badauka, deitzeko: laguntzeko prest nago.

Nahiko nuke zerbitzu horrek, garraiolariak eta Hiruko langileek jarraitzea. Berriak ere apuntatu daitezela. Uste dut garrantzitsua dela sindikatua.

Euskal Herrian erreferente bat izatea danontzat da garrantzitsu, ez sektorearentzat bakarrik. Hemengoak, hemen lan egiten dutenak, hemengoentzat. Izan daiteke, gainera, beste guztiarentzat akuilua.

**Orain denbora izango duzu?
Mendia ere gertuago daukazu...**

Belaun biak minduta dauzkat. Gainera, bihurritu bat izan nuen eta orkatilako maleoloa ere ukituta. Hobetoxeago nagoenean korrika hasten naiz, berriro minberatu arte.

Ez zara aspertuko, ezta?

Andrea lanean dagoen bitartean, lasai ibiliko naiz. Goizetan 6.00etarako jaiki, ondo baldin banago korrika egin, bazkaria prestatu... irailetik aurrera beste gauza batzuk egiteko asmoa daukat. Goizetan ikasketaren bat, ingelesa adibidez...

Bidaiatzeko gogoarekin, beraz...

Momentuz, Chiclanan, Bartzelonan, eta mendi aldean egon naiz aurten. Lagunekin mendira joaten hasteko asmoa badaukat. Himalaia aldera adibidez trekkingak egitera. Amets bat da.

«Te sientes presionado. Aunque digan "lasai", no estás tranquilo, si el transportista necesita ese papel para empezar a trabajar»

UGT y CCOO amagan con una huelga por la jubilación anticipada en octubre

Garraiolariak 60 urterekin erretiratzea eskatzeko urriko azken astetan sektoreko greba orokorra egitearekin mehatxatu dute CCOO eta UGT sindikatuek. Uztailaren 30ean izan zen; hurrengo egunean adierazi zuen Pedro Sanchez presidentek Gobernuak erabakita duela zenbait jardueren jubilazioa aurreratzea eta hori arautzeko taula batzuk osatuko direla. Bitako bat, sindikatuak ez dira Sanchezen Gobernuaz fidatzen eta hortzak erakutsi diete; ala urtetan jarrera epela izan ondoren, lorpena euren egin nahi dute. Bi prentsurrekoak adostuta zeudela dioenik ere bada, hasteko sindikatuak euren aldarrikapenak egin eta ondoren Gobernuak horiek asebeste dituela adierazi.

La convocatoria de huelga general en el transporte por carretera en la segunda quincena de octubre para reivindicar la jubilación anticipada de los transportistas ha causado sorpresa y estupor en el sector. UGT y CCOO lo anunciaron el 30 de julio, con dos meses y medio de antelación, reclamando, precisamente, el adelanto de la jubilación y los coeficientes reductores que lo permitan, justo cuando se ultimaban las negociaciones y parecía inminente un acuerdo en este sentido.

Al día siguiente el presidente del Gobierno Pedro Sánchez anunció tras la reunión de su Consejo de Ministros el acuerdo para reformar amplios aspectos de la jubilación y para fijar las tablas que lo regulen.

Después del anuncio llegaron las críticas para las organizaciones sindicales convocantes: “Los

Harrigarria bada, behintzat, greba deialdia ia hiru hilabete aurretik eta Sanchez presidentek jubilazioen aurrerapena aitortu bezperan egitea

sindicatos han aprovechado el acuerdo entre patronal, sindicatos y Gobierno para reformar la jubilación para apuntarse un tanto”. “Los sindicatos han aprovechado la situación para subirse al carro de la jubilación anticipada, algo que no han hecho dentro de los 30 años anteriores”. “Ya sabían que el acuerdo se iba a anunciar al día siguiente y se han dado prisa para convocar una huelga fake”. “En la

rueda de prensa han reconocido ellos mismos por lo menos 20 años de retraso.” Son algunas de las críticas a UGT y CCOO expresadas a principios de agosto en los medios.

Huelga indefinida

UGT y CCOO anunciaron el 30 de julio la convocatoria de huelga general para la segunda quincena de octubre ante “el bloqueo sistemático del adelanto de la edad de jubilación

Gobernuak adierazi du jubilazioen hainbat kontu aldatuko direla; horretarako araudi bat eta taula batzuek zehaztuko direla hilabeteotan



Ekainaren 7an Madrilen sindikatuek egindako protestaren irudia.

UGT eta CCOO sindikatuek eurek aitortu dute garraiolarien jubilazioa aurreratzeko erabakia 20 urteko atzerapenarekin helduko dela

de los conductores y conductoras profesionales por parte de las distintas patronales y del Gobierno”.

El representante de UGT dijo que sería partidario de que la huelga sea indefinida. También trajo a colación la alta estadística de accidentes mortales, muy por encima de la media, "hay estudios

que demuestran el aumento de la accidentalidad con la edad. El año pasado ha habido al menos cien muertes", por este motivo.

Criticó la oposición de la patronal "quieren mantener una profesión en precario". El pasado 7 de junio ya realizaron una multitudinaria concentración frente a las puertas

del Ministerio de Inclusión, Seguridad Social y Migraciones.

Reivindicación histórica

Los transportistas de Hiru también llevan años reivindicando la jubilación anticipada que ya tienen reconocida otras actividades también consideradas penosas y peligrosas como mineros, bomberos o policías. Sin embargo, a pesar de la aprobación de iniciativas políticas en este sentido en diversas épocas y foros nunca se han materializado. Así, los transportistas de avanzada edad siguen aún en la carretera, corriendo el riesgo de sufrir un accidente y perder la vida, muchos de ellos con enfermedades crónicas o patologías que acortan su esperanza de vida, además de poner en riesgo la seguridad vial del resto de usuarios de las carreteras.

Los sindicatos apuntaron que el año pasado fallecieron en el sector más de cien personas y que aproximadamente dos tercios de estas muertes fueron de trabajadores con más de 45 años de edad. Así mismo, las centrales sindicales también calculan que las incapacidades temporales declaradas en trabajadores del transporte con más de 55 años triplican a las que se dan en otros sectores económicos.



PAMENDI

943 624193 info@tallerespamendi.com

Arañaburu kalea 4 C, Lanbarren poligonoa 20180 Oiartzun (Gipuzkoa)

DAF salmenta 699 838 069

*Mekanika eta Elektrizitatea
Zerbitzu ofiziala*

**DAF
ISUZU**

**SCHMITZ
CARGOBULL** 

BABESA

ERREPIDEAN BIDELAGUN
COMPARTIMOS CARRETERA



¿CONOCES ALGÚN SEGURO QUE TE DEVUELVA DINERO?

Ciertamente los seguros no devuelven dinero, pero BABESA EPSV sí lo hace.

La EPSV, además de ser una herramienta que permite al transportista tener su vehículo asegurado a todo riesgo, es también una herramienta de ahorro.

Al final de su relación con Babesa, el transportista podrá recuperar hasta el 60% de las cantidades abonadas en concepto de prima.

La ayuda al cese anticipado alcanza sólo para el que tiene incapacidad

Adina bete aurretik erretiratu nahi duten garraiolariantzat ez da baldintza eta aukerarik. Pentsio gutxiago geratuko zaie. Aurretik jarduera uzteko laguntzarik ere ez da, horrela deitzen diren arren. Soilik ezintasunen bat daukatelako utzi dutenek jasotzen dute laguntza 65 bete aurretik.

El Gobierno de Madrid no pone los fondos y recursos necesarios para subvencionar el cese anticipado de la actividad del transporte. Con un presupuesto de 9,63 millones de euros sólo alcanza para los transportistas que tienen reconocida alguna incapacidad y para algunos pocos de los que han cumplido 65 años.

Los transportistas que quieren dejar la actividad antes de los 65 deben saber que no tendrán subvención. Todos los beneficiarios por edad tienen al menos 65 años cumplidos ya. Por tanto no se les debería llamar ayudas para el abandono anticipado de la actividad.

La ayuda sólo llega para una persona de cada 5 solicitantes. Sólo 2 de los 10 afiliados a Hiru que la han solicitado recibirán los 30.000 euros asignados para esta iniciativa. Ambos han tenido que dejar el transporte por incapacidad. En total, a nivel estatal, son 321 transportistas los que se beneficiarán de la ayuda de 1771 solicitantes, poco más de 18%. 1.158 no recibirán ni un

euro a pesar de que cumplen todos los requisitos porque el Gobierno no destina fondos suficientes para ello. Son más jóvenes que los afortunados. Y el resto, 292, no han cumplido con los requisitos solicitados, por ejemplo, estar al corriente en el pago de las obligaciones con Hacienda o la Seguridad Social.

Presupuesto insuficiente

La mayoría de las solicitudes de ayudas al abandono del transporte (80%) se rechazan por falta de fondos destinados a ellos en 2024. El Gobierno sólo dispone 9,63 millones de euros. En 2022 se dobló esa cantidad después del paro de tres semanas en el transporte. Pero el año pasado ya se volvió a presupuestar en esos casi 10 millones de euros.

Muchos transportistas que aspiran y desean dejar ya la

actividad al cumplir 60 años, y después de trabajar en el sector durante más de 40 años no reciben ayuda alguna por falta de presupuesto.

El requisito es tener más de 63 años cumplidos en el momento de la solicitud pero no llega ni para los que tienen ya 65 cumplidos. Sí recibirán 30.000 euros cada uno, los que tienen reconocida una incapacidad permanente absoluta o total para la profesión de transportista. Se puede consultar la lista de los agraciados con las ayudas al abandono en la página web: <https://cdn.transportes.gob.es>

En cuanto a la ayuda que concede el Gobierno Vasco, dirigida, de la misma manera, a los transportistas que ya han cumplido 63 años, también es totalmente insuficiente: el año pasado tocó a 12.300 euros por transportista que tendrá que vivir 18-24 meses con esa cantidad, pagar la cuota de autónomos y la cotización etc. La lista de agraciados y las cantidades que recibirán se conocerá en setiembre. Los beneficiarios deben obligatoriamente entregar su carnet de conducir y, por tanto, abandonar la actividad.

Eskaera egiten duten garraiolari gehientzat ez da laguntzarik iristen. Diru gutxitxo jartzen du Gobernuak. Bostetik batek jaso du aurten

Garraiolariei buruzko uste faltsuak

Generalmente en películas, series de televisión, páginas web, redes sociales y en el imaginario colectivo, el transportista es retratado de una determinada manera que, luego, no se corresponde exactamente con la verdad. Son mitos o creencias sobre ellos que se deben corregir para trazar una identidad más fiel a la realidad.

Garraiolariari buruzko irudi eta iritzi okerra du, oro har, gizarteak. Usteak erdia ustel. Modu jakin batean erretratatzeko dira film, komunikabide edota sare sozialetan eta modu jakin batean irudikatzen ditu jendeak. Gero, benetan, gaur egun beste era batekoak dira. Ez datoz itxura horrekin bat.

Uxatu ditzagun, beraz, garraiolari eta txoferrei buruzko mito faltsuak; esate baterako gidari txarrak direla eta istripu asko eragiten dituztela; garraioan ez dagoela emakumerik, askoz gutxiago dira, baina, badira; egun osoan bakarrik daudela, isolaturik; eta ez daukatela bizimodu osasuntsurik. Horiek entzuten dira.

Beste edozein arlotan bezala, denetarik dago garraioaren sektorean ere, baina, salbuespenak salbuespen, ezin dira ezaugarri horiek orokortu.

Gidatzerakoan zuhurtzia falta
Uste horien artean zabalduenetako eta errotenetakoa da garraiolariak arduragabeak direla eta istripu asko eragiten dituztela. Egon daitezke "ardi beltz" batzuk, baina salbuespena dira. Talde guztietan daude gidari arriskutsuak, baina garraiolarien artean ere. Dena den, egia esan, garraiolariak oso txofer arduratsuak dira eta arreta handiz

gidatzen dute, bai beren segurtasun pertsonalarengatik, bai gainerako gidarien segurtasunarengatik ere.

Kontutan hartzekoa da oso kontrolatuak daudela ere, polizien luparen begiradapean, normala, egun osoa errepidean daude eta. Jakina da, gainera, garraiolariak gidatzeko eta atsedean hartzeko denborari buruzko arau zorrotzak bete behar dituztela; nahitaez gelditu behar dute atsedean hartzeko, ezin dute nahi beste gidatu. Izan ere, isun handiak jasotzeko eta, kasu larriagoetan, baimena eta horrekin batera lana galtzeko arriskua dute.

Baina batez ere, senide eta lagun maiteak zain dituztelako zaintzen dute egoki norberaren burua; euren bizitza eta segurtasuna lehentasunetako bat da, alegia.

Emakumezko garraiolariak
Jakina da garraiolari gehienak gizonezkoak direla, baina ezin esan, emakumezkoak ez dagoenik. Aipagarria da, gero eta gehiago direla, gainera.

Lehen garraiolarien senideak izaten ziren emakumezko gidari gehienak. Gaur egun garraiolarien premia handia da, batetik; lan munduan emakumeek duten presentzia asko normalizatu da bestetik. Honek guztiak erraztu du emakumeak ere garraioan hastea.

Europar gutxi gorabehera %2 dira emakumezkoak. Oraindik gutxi, baina badira. Estatu Batuetan %6 eta seguraski ugaritu egingo dira ondorengo urteetan. Gero eta emakume gehiago ikusiko ditugu kamioiak gidatzen.

Isolamendua

Oro har, asko zabaldu da, egun, garraiolariak bizimodu bakartia daramatela, ordu asko ematen dituztelako bakarrik gidatzen. Sinesgaitza da hori, zalantzarik gabe. Duela hamarkada batzuk ere bideko aparkaleku, restop, jatetxe eta lo egiteko ostaluetan elkartzen ziren, adiskide handiak zituzten garraiolarien artean. Gaur egun gauzak aldatu egin dira, beste era batera dabilta, baina elkarrekin.

En realidad son muy responsables y conducen con mucha atención, tanto por su seguridad personal como por la de los demás usuarios



Es una contradicción asegurar que los transportistas se nutren mal y decir, luego, que donde paran se come bien.

Garraiolariak leku berri asko ezagutzen dituzte lanean ari diren bitartean, pertsona asko ere bai eta normala da lagun berriak egitea. Harremanak dituzte gelditzen diren tokietan edo daramatena uzten duten enpresetan.

Gaur egun, sare sozialen eta telefonoaren bidez hurbil dituzte etxeko eta adiskideak. Garraiolariarentzako komunitate eta espazioak ere badira on-line. Harreman berriak hasteko aukera ere badute beste edonork bezala.

Eta beti izango dute ondoan irratia, tresna bikaina bai bidean diren beste garraiolariarekin hartuemanetan jartzeko edo informatuta egoteko. Telefonoa daukate poltsikoan eta honek

Muchos llevan en el camión almuerzos ligeros, sanos y nutritivos, preparados en casa. y se dice que donde paran, normalmente, se come bien

gaur egun ez dauka mugarik, edonon egonda ere, edonori deitu diezaiokezu. Askok hobetu da horretan. Whatsappak ere asko errazten du edozein hartu-eman.

Bizimodu osasuntsua

Denbora luzean eserita egotea ez da horren ona osasunerako, garbi da hori, baina horrek ez du esan nahi garraiolariak bizimodu osasungarria ez dutenik. Badira garraiolari asko, atsedentlekuetan ibiltzera joaten direnak, luzamenduak edo ariketak egiten dituztenak.

Etenaldiak baliatzen dituzte giharrak erlaxatzeko. Badira, egia esan, zaintzen ez direnak ere.

Jateari dagokionez, ohiturak aldatu dira. Uxatu beharreko mitoa da, nutrizioari eta elikadurari dagokionez, garraiolariak oso gaizki jaten dutela. Askok bazkari arin, osasuntsu eta egokia eramaten dute, sarri bideko jatetxetan ez dutelako otordu horren osasuntsurik eskaintzen. Dena den, horietan ere jatekoak aukeratzeko beta izaten da.

Esaten da garraiolariak gelditzen diren tokietan ondo jaten dela, leku ezberdinak ezagutu eta aukeratu egiten dutelako. Prezio aldetik ere tokirik onenetan alegia. Bidaiatzen duenak, dabilenak, badaki, non jaten den ondoen.

En Europa el 2% de los transportistas son mujeres; en Estados Unidos el porcentaje es del 6%. Y aumentará en los próximos años

Ikastaroak

ADR eta CAP ziurtagiriak eskuratzeko edota berritzeko ikastaroak antolatzen ditu Hiru sindikatuak Langraitz-Oka, Larrabetzu eta Lasarte-Oriako bulegoetan.

El sindicato Hiru organiza cursos de **Formación continua de CAP, Obtención y renovación de ADR** en las oficinas de Lasarte-Oria, Larrabetzu y Langraitz-Oka.

Ikastaroa egiteko interesa duen edonor jarri daiteke Hirurekin harremanetan, eta berauen antolaketari buruzko informazio eguneratua jasoko du sindikatuak lau herrialdetan dituen bulegoetan.

Los interesados en participar en los diferentes cursos de formación que organiza Hiru deberán ponerse en contacto y recibirán información actualizada de los mismos en las oficinas del sindicato.

Txoferrak

Necesitamos **conductor autónomo** con tractora y remolque basculante propio. Carnet C+E y Cap. **943 611 024 625 605 447**

Necesitamos **chofer**, reparto con camión de tres ejes en Gipuzkoa, Bizkaia y Araba. **943 554 600** o **donostiarrasl@gmail.com**

Transportes Iruña necesita **conductor** o **transportista autónomo** base en Andoain, a dormir a casa. **609 452 260**

Se ofrece chofer Iñaki Lavin **722 736 229**

Se ofrece trabajo para transportista autónomo de confianza. Ruta estatal. **625 772 228**

Salgai

Se venden furgoneta **Transporter** y camión **Scania R620** **659 613 855**

Se vende **Remolque** con techo elevable y corredero, bomba neumática para elevación, restaurada y pintada. **678 428 844**

Se vende camión **Man**, caja de cambios automática y suspensión neumática integral. Carrocería de aluminio **656 709 184**

Se vende camión **Volvo** 3 ejes modelo 420 Interesados llamar al **659 875 314**

Se vende camión 3 ejes **Man**, TGX de diciembre de 2010 **636 898 951**

Los interesados en publicar su anuncio gratuitamente en este mercadillo pueden ponerse en contacto con Garraiolariok, en la dirección de correo electrónico garraio@hiru.org o en el número de teléfono 629 103 093

HIRU ASEGURUAK, precios 2024

Seguros obligatorios

	HIRU 2024	GRÚA O VOL.
CABEZAS TRACTORAS (NACIONAL- INTERNACIONAL)	1.397,25 €	1.443,85 €
CAMION RIGIDO NACIONAL		
TRAMO 1, (3,5-9 tns)	1.131,50 €	1.261,70 €
TRAMO 2 (>9-19 tns)	1.289,85 €	1.393,80 €
TRAMO 3 (>19-34 tns)	1.521,90 €	1.642,50 €
TRAMO 4 (>mas 34 tns)	1.606,95 €	1.703,55 €
CAMION RIGIDO INTERNACIONAL		
TRAMO 1, (3,5-9 tns)	1.131,50 €	1.261,70 €
TRAMO 2 (>9-19 tns)	1.289,85 €	1.393,80 €
TRAMO 3 (>19-34 tns)	1.668,70 €	1.761,95 €
TRAMO 4 (>mas 34 tns)	1.785,75 €	1.932,55 €
SEMIRREMOLQUES (NACIONAL-INTERNACIONAL)	464,95 €	489,65 €
REMOLQUES (NAC.- INTER.)		
DESDE 3,5TNS/10TNS	293,20 €	300,25 €
>10TNS	355,45 €	368,05 €
FURGONETAS	945,15 €	

- * Responsabilidad Civil Obligatoria.
- * Responsabilidad Civil Voluntaria 50.000.000€.
- * Defensa jurídica nacional o internacional dependiendo del ámbito de la póliza.
- * Roturas de lunas 100%
- * Asistencia en viaje hasta 6.000€ (3.000€ rescate y 3.000€ remolcaje), excepto furgonetas que disponen de una asistencia ilimitada. (Independientemente del ámbito nacional o internacional)
- * Accidentes corporales del conductor 24 horas (profesión): Muerte/Invalidez Permanente absoluta, parcial o total 50.000€ y asistencia Sanitaria. Confirmamos que el coste de añadir un conductor más sería 55,17 €/año. (Una póliza aparte que acompaña a la de circulación).
- * Accidentes Cinegéticos (excepto semirremolque y remolques).
- * Menores 25 años: incluida.
- * Entrada en puertos: incluida.
- * RC en parado para vehículos basculantes y/o grúa: incluida con una franquicia de 150€ (Una póliza aparte que acompaña a la de circulación).

Seguros de MERCANCIAS

	Franquicia	Cap asegurado	Prima 2024
Coberturas ICCA	150 €	5.000	177,18 €
Robo	150 €	10.000	204,90 €
Mojaduras	150 €	15.000	261,76 €
Roturas	150 €	20.000	314,34 €
Mala estiba general (max. 50.000)	300 €	25.000	365,77 €
Huelgas	150 €	30.000	410,29 €
Riesgos Extraordinarios	150 €	35.000	457,23 €
Carga/Descarga	150 €	40.000	499,52 €
Gastos remoción 6.000€		45.000	565,81 €
Suma asegurada <6.000 capital 5.000	Sin franquicia	50.000	571,54 €
Suma asegurada >6.000 capital 5.000	Sin franquicia	55.000	628,68 €
		60.000	663,43 €
		65.000	697,27 €
Mala estiba general		70.000	726,45 €
Contratada con un max. de 50.000 euros		75.000	788,70 €
10% con un mínimo de 1.200 euros	300 €	80.000	823,00 €
		85.000	868,73 €
Daños/contaminación de polizones		90.000	902,70 €
Suma asegurada <10.000 capital 5.000	10 %	95.000	960,17 €
Suma asegurada >10.000 capital 10.000	(Mínimo 1.200)	100.000	994,45 €
		105.000	1.057,32 €
		110.000	1.068,76 €
		115.000	1.103,05 €
		120.000	1.114,48 €
		125.000	1.154,49 €
		130.000	1.160,19 €
		135.000	1.211,63 €
		140.000	1.240,20 €
		145.000	1.257,36 €
		150.000	1.263,07 €
		200.000	1.468,83 €
		300.000	1.817,46 €

* Ámbito: U. Europea, Andorra, Ciudad del Vaticano, Croacia, Liechtenstein, Noruega, Mónaco, Suiza, San Marino y Reino Unido.

* Cálculo de la prima: Por matrícula.

* Mercancías: Perecederas, frágiles, tecnológicas, ADR (excluidas explosivas, auto inflamables y radioactivas) y generales salvo excluidas.

Seguros de responsabilidad civil

	2024 con patronal Fact. de 130.000	2024 con patronal Fact. de 260.000	Peligrosas con patronal Fact. de 130.000	Peligrosas con patronal Fact. de 260.000
Límite asegurado 300.000 €	127,40 €	194,46 €	296,37 €	488,94 €
Límite asegurado 600.000 €	224,07 €	299,28 €	391,16 €	625,86 €

► DENBORA-PASAK

7 diferencias desberdintasunak



**Bi irudi hauek
berdin berdinak
dirudite baina
zazpi desberdintasun
dituzte.
Topa itzazu!**



El objetivo del juego
es encontrar
las siete diferencias
entre estas imágenes
casi iguales.
¡Animo!

**Kamioia ez aurrera ez atzera
Idiazabalen;** Urtarrileko argazkia da,
pare bat hastean hiru kamioi gelditu
ziren kateatuta herri horretako baserri
bideetan. Argazkikoa GPSari segika
bide onetik aldendu eta galdu egin zen
Gurutzeta baselizara bidean. Beste biak
Urrutikoetxea baserriaren inguruan.

Sudoku zail xamararak

	4		9		6		1	
	8						3	
1		5			4	9		
	9		5	4		2		6
					1			7
	7			8	9	1		
			1	2				4
8							9	

		2		3				4
	7						5	
			4	6	9			
	6	4		5	3			
7							4	6
	5	8	9			7	6	
		6		2			8	
3								

129. aleko erantzunak



5	6	1	4	8	9	2	7	3
8	9	7	2	6	3	4	5	1
4	3	2	1	5	7	6	9	8
1	5	9	8	4	6	7	3	2
2	7	3	5	9	1	8	4	6
6	4	8	3	7	2	5	1	9
7	8	6	9	3	4	1	2	5
3	1	5	7	2	8	9	6	4
9	2	4	6	1	5	3	8	7

7	1	4	3	5	8	6	9	2
3	6	5	4	9	2	8	7	1
9	2	8	6	7	1	4	5	3
6	9	3	1	8	7	2	4	5
1	5	7	2	4	3	9	6	8
8	4	2	5	6	9	1	3	7
4	7	1	9	2	5	3	8	6
2	8	9	7	3	6	5	1	4
5	3	6	8	1	4	7	2	9

Norbere datuak / Datos personales

Afiliazio zenbakia:
Número de afiliado

NAN:
DNI

Helbidea:
Dirección

Telefonoa:
Teléfono

Izen abizenak:
Nombre y apellidos

Jaiotze data:
Fecha de nacimiento

Herria:
Población

Posta elektronikoa:
Correo electrónico

PK:
CP

Jarduera datuak / Datos de la actividad

Enpresa baimen zenbakia:
Número de afiliado

Mota:
Serie

Ibilgailua:
Vehículo

Erdi-atoia:
Semirremolque

Banketxea:
Entidad bancaria

Afiliatze data:
Fecha de afiliación

Uztearen arrazoia:
Motivo de baja

Kopia ziurtatuaren mota eta zenbakia:
Nº copia certificada

Lan mota:
Tipo de trabajo

Matrikula:
Matrícula

Matrikula:
Matrícula

Kontu korrante zenbakia:
Nº cuenta corriente

Uzte data:
Fecha de baja

Zama:
Carga útil

Sindikatu zerbitzuak / Servicios del sindicato



Sinadura / Firma:

Oria etorbidea 10, 406. bulegoa
20160 Lasarte-Oria
T: 943 364 092
F: 943 363 262
gipuzkoa@hiru.org

Los Llanos industrialdea,
A kalea, 13
01230 Langraitz
T: 945 361 627
F: 945 361 643
araba@hiru.org

Meseta de Salinas
industrialdea, A kalea, 4
31191 Galar
T: 948 281 024
F: 948 281 025
nafarroa@hiru.org

Sasine Poligonoa
Utza Kalea 7 Larrabetzu
Salida 25 del corredor
del Txorierri
944046664
larrabetzu@hiru.org

Lanbarren industrialdea,
Mugarriegi kalea 2
20180 Oiartzun
T: 943 260 349
F: 943 260 805
lanbarren@hiru.org

Langraiz Oka (Los Llanos industrialdea, A kalea, 13. pab.) helbidea duen HIRU SINDIKAL KONFEDERAZIOAK formulario honen bidez sartutako datu guztien segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen du, Datuen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren arabera. Garraio aholkularitza zerbitzua eskaintzeko erabiliko dira datuok. Hala nola, nahi izanez gero, Legean agertzen den sarbide, zuzenketa eta deuseztapen eskubideak erabil ditzakezu, mezu bat igorri aipatutako helbidera edo honako fax zenbaki honetara: 945 361 643.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de carácter personal HIRU GARRAIOLARIEN SINDIKAL KONFEDERAZIOA, con domicilio en Langraiz Oka (Los Llanos industrialdea A kalea 13) le informa de que los datos de carácter personal que Ud. nos facilite serán incluidos en un fichero responsabilidad de esta entidad con la única finalidad de prestarle servicios de asesoría de transporte. Ud. en cualquier momento podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, oposición y cancelación mediante solicitud escrita dirigida a la dirección indicada o nº de fax 945 361 643.



CON LAS TARJETAS STAR DE CEPSA **VAS A LO SEGURO.**



Para todo conductor, la seguridad es fundamental. Pero para un profesional del transporte, lo es mucho más, porque afecta también a tu trabajo. Por eso las **Tarjetas Star de Cepsa** están pensadas para ti:

- Descuento en carburante
- Factura electrónica
- Gestión online
- Extracto de transacciones
- Amplia red de estaciones de servicio

Además con las Tarjetas Star y Eurotrafic de Cepsa:

- Número PIN en las transacciones
- Asistencia técnica en carretera
- Pago de peajes

Solicítalas en el **943 364 092**,
en cualquiera de las **oficinas de Hiru**
o en **www.tarjetascepsastar.com**

CEPSA

Tu mundo, más eficiente.

**Euskal Herrian
bizi eta lan egiten
duten garraiolari
autonomoei
gasolio onena
prezio eta
kalitate ezin
hobean
eskaintzen die
Bideko
Aterpek.**

**Lau zerbitzugune dauzka
Bideko Aterpek Hego Euskal Herrian:
Arabán, Langraitzen;
Nafarroan, Galarren;
Gipuzkoan, Oiartzunen
eta Bizkaian, Larrabetzun.**

**Edonora joanda ere
kalitatezko gasolioa
topatuko duzu bidean.
Hori aukera,
hori mauka!**

BIDEKO

***GASOLIO ONENA
PREZIO EZIN HOBEAN***

***EL MEJOR GASOIL
AL MEJOR PRECIO***